

GURE LEGEAK

UZTAREN OGEI TA BATA

OG EI ta amabi urte igaro dira joan zirala gure gandik euskaldunaren Lege Zarrak.

Ordu ezkeru, egiya da, denbora joan dala.

Bai, egiya da; bañan, zer ajola zaigu, baldin gure bularretan badakagu indarra eta gozotazuna Euskal erria maitatzeko.

Euskaldunak! nork daki, nork daki berriro azaltzia gure gan Lege Zarrak.....!

Bañan iduki zagun beti aurrean Iztuetak ezan ziguna:

Euskara ill ezkeru
Fueroak ilko dira:
¡A! Bañan euskararekin
Fueroak biziko dira.

¡Euskaldunak! gean, lenbizi, erri ontako gizonak euskaldun biotzekoak.

F. LÓPEZ ALEN
